ZARAUZKO UDALA

1135 zkia

2022D2020008

“Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, 2022-KALD-000008-00 zenbakiduna,

Ikusita kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Ikusita kontu-hartzaileak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena, **ERABAKITZEN DUT**:

**Lehenengoa.-** Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

**KREDITU GEHIGARRIAK**

| Kapituluak | Izena | Gehikuntzak |
|---|---|---|
| 6 | INBERTSIO ERREALAK | 709.000,00 |
| 7 | KAPITAL TRANSFERENTZIAK | 115.000,00 |
| **KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA** | | **824.000,00** |

**FINANTZAKETA**

| Kapituluak | Izena | Zenbatekoa |
|---|---|---|
| 8 (SARRERAK) | FINANTZA AKTIBOAK | 824.000,00 |
| **GUZTIRA** | | **824.000,00** |

**Bigarrena.-** Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailetza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.

**Zarautzen, 2022ko ekainaren 13an**
**Alkatea**

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU90d33546-1f4c-40bf-b15b-874e2b0b91f1**
*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07910***
*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07910***